

# ARALARKO NATUR PARKEAREN (GOIALDEKO LARRE ETA BASOEN) KUDEAKETA JASANGARRIRAKO PROPOSAMENA

## 1. Helburua

Lan honen helburua, Natur Parkearen kudeatzaile nagusi den Gipuzkoako Foru Aldundiari eta baita Enirio Aralar Mankomunitateari ere, Landarlan Ingurumen Elkartearen aldetik, ingurune babestu honen **kudeaketa jasangarri baterako proposamen bat luzatzea** da.

Hemen ikusiko den proposamena ez da soilik ingurumenaren kontserbazioaren mesedetan eginikoa, baizik eta Natur Parkearen ondare naturala babesteaz gain, bertan larratzeko eskubidea duten abeltzainen mesedetan eginikoa ere bada. Zinez sinesten dugu proposamen hau azken urteetan sortu den gatazka sozialari irtenbidea bilatzeko dokumentu egokia dela, honenbestez, **Aralarren erabiltzaile guztientzako mesedegarria dela**.

Proposamen sintetizatu bat da, Aralar Natur Parkearen helburuak betetzera bidean egindakoa, eta aurrez Aralarren egin diren azterketa anitzetan eta Legedian oinarritzen da.

Proposamenak egiten hasi aurretik garrantzitsua da “Naturguneen eta Basa-flora eta Basa-faunaren Kontserbazioari buruzko martxoaren 27ko 4/1989 Legeak Natur Parkeei buruz dioena ezagutzea: **“Natur Parkeen helburua natur baliabideak babestu, kontserbatu, leheneratu eta hobetzea da, bereziki, natur guneak eta flora eta fauna basatiak. Gainera, kudeaketa horren printzipioetako bat bertako paisaien aniztasuna, berezitasuna eta edertasuna babestea da”**.

Aralar Natura 2000 sarean dago, eta **ES2120011 Kontserbazio Bereziko Eremu** bezala ere izendaturik dago. Natura 2000 sare honen helburua honakoa da: **“kontserbazio egoera mesedegarri batean, habitat natural moten eta dagokien espezieen habitatak euren hedapen naturaleko eremuan, mantendu edo berrezarpena bermatzea”**.

“Aralar, Mundua Leku den Lurra” pelikulan Karmenu Vella Europako ingurumen komisarioak dioen bezala, **“Natura 2000 sareko lekuetan, jarduera ekonomikoak ez daude baztertuta, baina kontu handiagoz jokatu behar dugu eta ziurtatu egin behar dugu jarduera ekonomiko orok natura indartu egiten duela leku horietan, eta ez suntsitu”**”.

## **2. Proposamena osatzeko erabili den oinarria**

Kudeaketa plan sintetizatu hau osatzeko, orain arte dagoen **oinarri legal eta zientifikoan oinarritu da Landarlan** Ingurumen Elkarteak. Honakoak izan dira proposamen hau egiteko erabili diren Foru Dekretuak eta Aralarko kudeaketaren inguruan eginiko lanak.

- 168/1994 DEKRETUA, apirilaren 26koa, Aralar aldeko Natur Baliabideen Antolamendurako Plana onesten duena.
- Apirilaren 11ko 56/1995 FORU DEKRETUA, Aralarko Parke Naturala Administrazioa.
- 84/2016 DEKRETUA, maiatzaren 31koa, Aralar (ES2120011) Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzeko dena. Euskal Herriko Aldizkari Ofiziala.
- Enirio-Aralarko ekintzen egitama 2002. (Enirio-Aralar mankomunitatea)
- Plan Rector de Usos y Gestión del Parque natural de Aralar 2015. (DFG)
- Aplicación del Multi-Criterio Social para la gestión del Parque Natural de Aralar. EHU.
- Aranzadi Zientzia Elkarteak 2016an Batzar Nagusietan eginiko aurkezpena.
- Actualización de la información y valoración de la situación de la explotación ganadera en la Sierra de Aralar (ZEC Aralar) en Gipuzkoa, en relación a la construcción de nuevas pistas. Aranzadi. 2017.
- Enirio-Aralarko Larreen Antolaketa Plana (LAP). 2019. (EH BILDUren aginduz ikerlari independenteek egin)

### 3. Aralarko egitura administratiboaren inguruko aldaketa/hobekuntza proposamenak

Enirio Aralar Mankomunitatearen eta Natur Parkearen arduradun nagusi den Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokionean, Landarlanek honako proposamenak egiten ditu egitura administratiboaren inguruan:

1. **Natur Parkeko Zuzendari artatzaileak Parkearen kudeaketa eta administrazioan bete beharrak betetzea.** Jakina da azken aldian Aralarren legez kanpoko zenbait ekintza egin direla (legez kanpoko pistak, pistetatik kanpo ibiltzen diren ibilgailuak, baimenik gabeko ibilgailuak, leizeetako legez kanpoko hondakindegia...), eta Natur Parkearen zuzendari artatzailearen aldetik ez da inolako mugimendurik sumatu, ez basozainen eginbeharren inguruan ezta isunen ezarpenean ere.

56/1995 Foru Dekretuaren arabera **Funtzio hauek bete beharko lituzke** zuzendari artatzaileak:

- *“Parkearen kudeaketa programak burutzeko behar diren jarduerak koordinatu eta, hala behar denean, aurrera eramatea.*
- *Inbertsio, jarduketa, azterketa eta ikerketen urteko programa lantzeko proposamenak egitea.*
- *Natur baliabideak antolatzeko planak eta erabilera eta kudeaketa plan gidariak ezarritako xedapen arauemaileak eta jarraibideak betetzen direla zaintzea Parkearen barruko jarduketa guztietan.*
- *Parkearen zerbitzuan ari diren langileen lanak zuzendu, ebaluatu eta ikuskatzea.*
- *Beste entitate, organismo, udal eta pertsonekin harremanak izatea.*
- *Jarduera eta emaitzei buruzko urteko memoria idaztea.*
- *Foru organo eskudunak eta arauteriak espresuki emandako beste funtzioak”.*

2. **Enirio Aralar Mankomunitatearen Lantaldea birplanteatu, lantalde anitza izan dadin.** Aralarren inguruan dauden interes ezberdinak barne hartuko dituen eta legearen barnean dauden erabakiak hartuko dituen. **Gaur egun dagoen lantaldea, ia bere osotasunean abeltzainez osaturik dago,** honenbestez lantaldeak Mankomunitateari luzatutako proposamen guztiak alde bakarrekoak dira.

3. **Mankomunitatearen organigramaren birrantolaketa/birplanteamentua.** Mankomunitateak dituen figura nagusien inguruan honako aldaketak proposatzen ditu Landarlanek:

- **Idazkari propioaren kontratazioa:** Ordiziako idazkaria da gaur egun Mankomunitateko idazkaritza lanak egiten dituen. Oposaketa bidezko kontratazio berri honek erabiltzaileen tramiteak asko azkartuko lituzke.
- **Teknikari Kualifikatuaren kontratazioa:** Mankomunitatearen eguneroko bizian erabakiak hartuko dituen figura baten beharra azpimarratu nahi du Landarlanek. Oposaketa bidez aukeratuko den teknikari honek, **goi mailako ikasketak izan beharko ditu, eta Mankomunitatearen, Natur Parkearen eta bestelako legedietara egokitu beharko da** beti ere. Gaur egun Aralarren dagoen teknikaria ganaduzalea da Aralarren bertan, eta Landarlanentzat ulergaitza da Natur Parke izendaturiko eremuan soilik interes batzuen alde lan egingo duen teknikari bat egotea.
- **Basozainen/guarden presentzia areagotu Aralarren:** Mankomunitateak ehunka erabiltzaile ditu, eta guarda bakarra dago. Beraz, parkean kontrol bat egotea nahi bada eta funtzionamendu egoki bat bilatu nahi bada, gutxienez bi guarden beharra adierazten du Landarlanek, honela, tramiteak azkartu eta bertako erabiltzaileen egunerokotasuna erraztuko litzateke. Guarden lanak errazteko, Landarlanek ezinbestekotzat jotzen du Gipuzkoako Aralarren guardetxe bat ezartzea, horretarako egun dauden eraikin edo txaboletako bat erabili ahalko da.

4. **Erakunde kudeatzaileak Larreen Antolamendu Plana egin eta bertan ezarritako irizpideak jarraitu ditzala.** Enirio Aralar Mankomunitateak azken urteetan inolako jarraibiderik edo kudeaketa planik gabe lan egin du eta Natur Parke baten barruan egonik, onartezina da jokaera hori. Honenbestez, Aranzadik 2017an eginiko (*“Actualización de la información y valoración de la situación de la explotación ganadera en la Sierra de Aralar (ZEC Aralar) en Gipuzkoa, en relación a la construcción de nuevas pistas.”*) azterketaren ondorioetan adierazten den moduan, Aralarren Larreen Antolamendu Plan bat (LAP/POP) egin behar da:

- *“La mejora de infraestructuras en Aralar, incluyendo entre estas la construcción de pistas, exige una mejor planificación en el marco de un POP*
- *Para el desarrollo de un POP adecuado y eficaz es fundamental un diagnóstico sobre el medio natural, cultural y socioeconómico.*
- *La construcción de nuevas pistas u otro tipo de alternativas (agrupación de chabolas, relocalización de mangas, etc.) será, si es el caso, consecuencia de la planificación (POP), en función de la gestión y manejo del ganado que se vaya a realizar. Ésta, además, ha de ser compatible con la conservación del patrimonio del espacio.*
- *Dada la ausencia de POP y la falta de conocimiento en muchos elementos directamente asociados al ganado, que a priori no permiten llevar a cabo la citada planificación, convendría llevar a cabo una moratoria en la construcción de nuevas pistas, al menos hasta disponer de un POP”.*

#### **4. Basoen Kudeaketaren inguruko proposamenak**

Natur Parkearen helburua zein den jakinda, eta ondorioz, basoek bertako espezie basatien kontserbazioan duten garrantzia ikusita, ordenazio planaren arabera (*168/1994 Foru Dekretua*) basogintzarako bideraturik dauden lurretan eta Enirio Aralar Mankomunitatearen 15 udalerrien lur publikoetan, **jarraibide hauek hartzea proposatzen da:**

- Mankomunitateko baso guztia Lareoko arroan dagoenez, kudeaketarako helburu nagusia kalitateko ura biltzea izango da eta, beraz, baliabide horren kontserbaziora bideratuko da
- Ustiaketara bideraturiko basoak horretarako egokiak diren (orografia, ingurunearen egoera, higadura arazoak, akuiferoen zaurgarritasuna, etab. kontuan izanda) lekuetara mugatzea.
- Baso eremuentzat epe luzeko plangintza eta estrategiak finkatzea.
- Hazkunde azkarreko espezieen landaketak murriztuz joan eta bertako baso potentzialari bide eman.
- Baso kudeaketa planetan naturaren kontserbazioa funtsezko aldagaia izatea.
- Baso kudeaketan aldaketa klimatikoan oinarritutako aldagaiak txertatzea (karbono hustuleku gaitasuna handiagotzeko, erresilientzia hobetzeko, etab.).
- Baso egitura eta prozesuen jarraipen sistematikoa egiteko beharrezko ikerketak garatzea.

## 5. Larreen kudeaketaren inguruko proposamenak

Kasu honetan ere, Natur Parkearen helburuei jarraituz, eta abeltzainek larreak ustiatzeko duten eskubidea kontutan hartuta, bai naturarentzat eta baita bertako abeltzaintzat (eta beraien etorkizuna bermatzeko) ere kudeaketa onuragarria delakoan, honakoa proposatzen da:

1. **Enirio Aralar Mankomunitateko lurretara dauden sarrera guztiak itxi, eta soilik baimenduek ireki ahalko duten sartu-irten sistema bat ezarri.** Mendiko zerbitzuez gain, soilik artzain eta abeltzain profesionalek izango dute baimena sartzeko. Eta larrialdi kasuetan basozainaren baimena beharko da horretarako. GPS bidez kontrolatuko den sistema bat ezartzea proposatzen da. Modu honetan, Aralarren dagoen azientaren eta bertako abeltzainen lasaitasuna, eta honenbestez ongizatea hobetzeaz gain, ibilgailuen joan etorria kontrolatu eta gutxituko da eta ondorioz bertako natur inguruneak jasandako soinu eta emisio<sup>1</sup> inpaktuak gutxituko dira.
2. **Mankomunitateak eraiki dituen legez kanpoko bi pistak lurrez estali eta bertako landareak birlandatu (Elorria, gorostia, hagina eta pagoa).** Aranzadi Zientzia Elkarteak 2016an aldundian egin zuen aurkezpenean adierazi zuen moduan, *“Aralarko pistak inpaktu latza eta itzulerarik gabekoa eragiten dute, eta gatazka soziala ere eragiten du”*. Kontuan hartu behar da, Baliabideen antolamendu planaren arabera “Mendi Babesle” bezala izendaturiko lur eremuetan egin direla bi pistak, eta eremu hauetan bideak egitea debekaturik egoteaz gain, higadura arriskua handiko guneak dira, antolamendu planaren arabera baso bilakatu beharreko eremuak hain zuzen ere.

2002an eginiko Enirio Aralarko ekintzen egitامuan honakoa zehazten da: *“Azken finean, Aralar mendi publikoa izanik, bere kudeaketarako oinarriak eta irizpideak zehazteko garaian, ikuspegi ezberdinak dituzten eragile guzti hauek hartu behar dira kontutan. Honela zenbait gunetara pista edo ibilbide berriak zabaltzeko aukera aztertzerakoan, arazo edo irizpide teknikoak kontutan izateaz gain, kolektibo sozial edo erabiltzaile ezberdinen ikuspegiak ere barneratzen saiatu behar dugu, kudeaketa gizarte osoaren mesedetan egin behar baita”*.

---

<sup>1</sup> Eta isurketa arriskuak

3. **Aurreko atalean aipatu den moduan, “mendi babesle” eta “babes barruti” diren guneeetan bertako landarediari bide eman.** Antolamendu planaren arabera, higadura ekiditeko landarediari bide eman behar zaio, lehenik sastrakak eta ondoren zuhaixka eta zuhaitzak atera arte. Gaur egun, Mankomunitatean “mendi babesle” diren hainbat eremutan sastraka mozte lanak egiten ari dira urtetik urtera, hau da, bertako **higadura ekiditeko landaredia erabili ordez, higadura areagotzen duten metodoak erabiltzen ari da baso izateko eremu hauek larre izatera behartuz.** Ezin da ahaztu, sastrakak habitat mota oso garrantzitsuak direla, eta Aralarko eremu askotan oso urriak direla. Gainera, Aralarko goi lurretan edo larre eremuan oso zuhaitz gutxi ikusi daitezke, eta zuhaitz edo baso hauek animalia basatiari zein aziendari babesteko eta itzala emateko balioko diete.
4. **Higadura handiko eremuetan, lurra berreskuratzeko praktikak erabili, larre eremuak edo baso eremuak berreskuratzeko asmoz.** Aralarren ugariak dira harkaitz bizian dauden lur eremuak, eta azalera hau urtetik urtera areagotzen ari da bai bertako artzainek edo mendizaleek horrela ikusi dutelako, eta baita USLE Higadura Ereduaren bitartez “*Enirio Aralarko ekintzen egitamuan. 2002*” adierazten zen moduan, 100 Tn/ha/urteko lur galerak baino altuagoak (**oso higadura larria**) dituzten gunek asko daude **Arritzagako eta Enirioko bailaretan**, “babes barruti” eta “mendi babesle” guneeetan alegia.

2002ko egitamuak honela definitzen ditu **higadura arrisku larriko guneak**: *“higaduraren arriskua larria den tokietan erabilera guztiak baldintzaturik geratzen dira, lurzorua ezegonkortasuna ekar dezaketen ekintzak ekiditea beharrezkoa baita. Ondorioz, azpiegitura berriak kaltegarriak bihurtzen dira, abeltzaintza eta artzaintza asko estentsifikatu behar dira, eta beharrezkoa da, aldiz, lurzorua eutsiko duten birlandaketak sustatzea.”*

“Enirio-Aralarko Larreen Antolaketa Plana (LAP). 2019”-ren arabera, *“gomendagarria da aldapa handieneko lekuetan lurzorua babesteko landaketak egitea, higadura arrisku handiagoa dutelako. Lurzoru horien hauskortasun eta zaurgarritasuna dela medio, litosol (oso azaleko lurzorua) motako lurzoruetan beharrezkoa da higadura arintzeko babes*



*neurriak hartzea, lurzoru galera itzulezinak bere kabuz leheneratzeko aukerak oso urriak direlako.”*

Honenbestez lurraren galera ekiditeko eta lurra berreskuratzeko **bi metodo proposatzen ditu Landarlanek:**

- Higadura larriko eremuetan ganadu karga gutxitu eta landarediaren garapenari bide eman
- Abeltzaintza holistikoaren erabilera lurra berreskuratzeko ia erabat galdurik dagoen eremuetan. Azken honetarako bertako higadura maila eta orografia kontutan hartu beharko da.

Bestalde, “*Plan Rector de Usos y Gestión del Parque natural de Aralar*”-en arabera honakoa egin beharko luke erakunde kudeatzaileak **premia handiarekin**: “*Se continuarán aplicando las medidas correctoras necesarias para reducir los efectos perjudiciales que los procesos degradatorios naturales asociados a la actividad puedan causar en la calidad de los recursos pascícolas y en la conservación de los hábitats*”. Azken urteetan erosio arrisku handiko gune hauetan eginiko sastraka mozte lanek eta ganadu kargaren mantentzeak ez dute PRUG plana “premiaz” betetzea ahalbidetzen.

5. **Aralarko txabolen berrantolaketa egin.** Txabolen berrantolaketa bat egitea ezinbestekotzat jotzen du Landarlan Ingurumen Elkarteak, beti ere **artzain profesionalen eta gazteenen etorkizuna bermatzeko**, horretarako txabolaraino edo ia bertaraino pista duten bordetan, lehentasuna aipaturiko artzain hauek eduki beharko lukete.

2019 urteko “Enirio-Aralarko Larreen Antolaketa Plana (LAP)” azterketak, kontuan hartu beharreko hainbat datu ematen ditu:

- *“Enirio Aralar Mankomunitatean 40 txabola daude esleitzeko moduan.*
- *Artzainen adinen batzbestekoa 52 urtekoa da.*
- *Azken 10 urteetan artzain bat besterik ez da igo.*
- *Gaur egun badaude 65 urtetik gora dituzten 5 artzain eta beste 4, adin muga hurrengo 5 urteetan gaindituko dituztenak.*

- *Badago txabola bat artzain ez profesionalari esleituta eta irisgarritasun ona duena.*
- *Kasu gehienetan oraingo erreleboa ez dago ziurtaturik*
- *Txabolen erdiek irisgarritasun egokia dute, eta beste 3 bordetara traktore bidez, eta 16 bordek arazoak dituzte kotxeen bidez iristeko.”*

Datu hauen arabera, **ez dago zalantzarik** etorkizunari begira eginiko txabolen **berrantolaketa bat behar dela**, Aralar mendi publikoa izanik (borda pribaturik gabe) bertako txabolak modu logikoan banaturik egon beharko lirатеke, beti ere etorkizun profesionala duten artzain gazteei lehentasuna emanaz eta dagoeneko Aralarren ari direnak lehenetsiz

LAP azterketa honen ondorioak oso interesgarriak dira eta Landarlanen ustez kontutan hartu beharko lirатеke berrantolaketa bat egiterako momentuan:

- *Epe ertain-luzean (2030) zenbat txabola beharko diren zehaztea, txabolen eskariaren eta egungo zein etorkizuneko erabiltzaileen aurreikuspenen arabera, .*
- *Pistarik gabe geratzen diren txaboletan kasuz-kasu hartu daitezkeen neurriak zehaztea.*

Landarlanen ustez, azken puntu honi dagokionen, **pistetatik gertu dauden txabolak eskaini** beharko lirатеke, edo bestelako laguntzak aztertu beharko lirатеke, baina beti ere egungo legedia errespetatuz.

6. **Aralarko artzainen bizia eta Natur ingurunearen kudeaketa lanak errazteko garraio eta mantenu lanetarako lanpostuen sorrera.** Enirio Aralar Mankomunitateak duen aurrekontua kontutan hartuta, gutxienez 4 beharginentzako lanpostua sortu daiteke, behargin hauen eginbeharrak hauek izan daitezke.
- a. Mando bidezko garraio lanak irisgarritasun arazoak dituzten txaboletara.
  - b. Aralarko Txabolen, asken eta bestelakoen mantenu lanak.
  - c. Abeltzainei momentu zehatzetan laguntzeko zerbitzua eskaini (animaliak biltzerakoan, baja baten aurrean,...)
  - d. Naturaren zaintza lanak (espezieen jarraipena, datu bilketa, ibilgailuen kontrola,...)
  - e. Bestalde, helikopteroaren erabilera ere bultzatu, artzainek zama askoko materialak garraiatu behar dituztenean, baita txabola edo ur askekin ere, alegia azpiegitura lanak egin behar direnean.
7. **Azienda buru kopuruaren ezarpena abeltzain bakoitzeko.** 1988-ko abenduan eginiko Enirio-Aralarko Ekintzen Egitamuan, artaldeko ardi kopuru gehiengoa 400 burutan estimatzen zen, eta ganadu larriaren kasuan 8 buru ganaduzale bakoitzeko. Baina geroztik eman den bilakaerak hankaz gora bota ditu ebazpen guztiak, 1000 ardiko artaldeak baitaude eta baita 100 behikoak ere. **Honenbestez azienda buru kopurua finkatzeko momentua iritsi da** ingurumenaren zaintza eta abeltzainek larratzeko duten eskubidearen artean oreka jasangarri bat bilatuko duena.
8. **Aralarko aziendaren ganadu kargaren azterketa, larreen kalitatearen azterketa eta ganadu larriaren berehalako jaitsiera azterketetan lorturiko balioetan finkatzeko. Azken finean, larreen kalitate egoki bat bilatzeko.**

1988-ko abenduan eginiko Enirio-Aralarko Ekintzen Egitamuan azienda buru kopurua **20.000 eta 25.000 ardi buruen bueltan** zehazten zen, 15.000-18.000 ardi artaldeetan eta gainontzeko 5.000-7.000 ardi buruen balioa behor eta behi azienda moduan. 2002ko Ekintza Egitamuan, balio hauek berretsi egin ziren larreen ekoizpen datuetatik, eta baita bazka eskaintzak ematen zuenari jarraituz.

Baina **geroztik eman den bilakaerak hankaz gora bota ditu ebazpen guzti hauek**, esaterako Aranzadik 2016an egindako lanketaren arabera 33.000 buru zeuden eta 2018-ko datuei dagokienean aldiz azienda buru kopurua **35.000 ardi buruen baliora iritsi zen**. Ardien kopurua esan daiteke balio maximoetan mantendu dela, 17.500 inguruan. Baina ganadu larria bikoiztu egin da azken urteetan, eta 2018-an 750 behor eta 1.000 behi izan dira Aralarko larreetan, hau da, 17.500 ardi bururen balioidea, Egitamuetan finkaturiko 5.000-7.000 buruko baliotik oso urrun.

Aralarko larreak egoera onean mantendu nahi badira, eta ondorioz bertako abeltzainen etorkizuna ziurtatu nahi bada, larreek jasaten duten estresa eta aipaturiko gehiegizko ustiapena berehala aldatu behar da. Horretarako, **Landarlanek ganadu larriaren kontrol bat ezartzea eskatzen du**, eta kudeaketa plan ezberdinetan ezarritako balioetara jaiste. Irizpideak hartzerako momentuan, abeltzain profesionalak lehenetsuna izan beharko lukete Aralarren ganadu larria mantentzeko.

“Aplicación del Multi-Criterio Social para la gestión del Parque Natural de Aralar. EHU” azterketaren arabera, **ganadu larriaren karga, datozen 5 urtetan 800-1000 burutara jaiste** izango litzateke **egoerarik hobere**na, eta azterketa honek ere zera dio, *“Para solucionar los problemas de sobrepastoreo e infra-pastoreo es necesario diseñar un Plan de Gestión de pastoreo sostenible y activo (modelo que se está fomentado en Navarra)”*

Bestalde, oso interesgarria da 2019-ko *“Enirio-Aralarko Larreen Antolaketa Plana (LAP)”* izeneko azterketan, Urteko Ustiatze Indizeari (UUI) buruzko atala. Kasu honetan bi UUI lortzen dira, bata 1,39-koa da eta bestea 1,47-koa. Zera esan nahi du honek, Aralarren dagoen azienda zama mantendu nahi bada, **Aralar 1,39 edo 1,47 aldiz handiagoa izan beharko litzatekeela**, azterketak dioen bezala: *“Esandako indizeak 1 baino handiagoak direnez, Aralarko larreetan aziendaren presioa handiegia da. Zama hori nabarmena da ganadu guztia edo ia guztia mendizerran dagoenean, ekainaren 15etik urri-azaroa bitartean”*.

Oso adierazgarria da “84/2016 DEKRETUA”-n, 63. Erregulamentuan irakurri daitekeena, *“Para el establecimiento de las cargas ganaderas óptimas en función de la oferta de biomasa pastable, obtenidas a partir de los datos del seguimiento y control y de la demanda estimada en base a los registros de solicitudes de pastoreo, la demanda de biomasa pastable no rebasará nunca un índice de aprovechamiento del 70%. Para ello se ajustarán anualmente las fechas de entrada y salida a las condiciones climatológicas y a los periodos convenientes de dormancia y crecimiento de los pastos”*. Gaur egun, eta azken azterketek adierazi duten moduan, **Aralarko larreen aprobetxamendua %140an kokaturik dago, hau da, gaur egun dagoen ganadu karga ia erdira jaitsi beharko litzateke** Aralarko larreak egoera onean mantendu nahi badira eta ondorioz bertako abeltzainen etorkizuna bermatu nahi bada.

Aralarko *“Plan Rector de Usos y Gestión del Parque natural de Aralar ”* edo PRUG-en adierazten den moduan: *“El OG (Organismo gestor) del PN establecerá las cargas ganaderas óptimas en función de la oferta de biomasa pastable, obtenidas a partir de los datos obtenidos del seguimiento y control que se sigue en los diferentes pastos del Parque Natural, y de la demanda estimada en base a los registros de solicitudes de pastoreo, que se sigue en los diferentes pastos del Parque Natural”*. Honenbestez **Landarlan Ingurumen Elkarteak parkearen erakunde kudeatzaileari, bere betebeharrak bete ditzala esateaz gain, azterketa sakon baten, Larreen Antolamendu Planaren (LAP-POP) beharra aldarrikatzen dio.**

## 6. Ingurumenaren zaintzarako proposamenak

Natur Parkearen helburu nagusia bertako ondare naturala hobetzea dela ikusita, Aralarren lan handia dago bertako zenbait ekosistemen leheneratzean.

1. **Urtean Aralarko Leize edo koba baten garbiketa.** Saltarriko leizea, Agautzko leizea, Troskaeta koba edo Sarastarri koba gizakiaren eraginez erabat desitxuratuta geratu diren lurrazpiko habitatak dira, habitat oso aberatsak, babesturiko zenbait espezie bizi baitira Aralarko barrunbeetan. Leizeak orokorrean, zaborrez beteta daude, eta kobazulorik famatuenei aldiz, turismo espeleologikoaren ondorioz, paretak margotu dizkiete eta itxura artifiziala daukate. Leize baten bideoa, adibide modura esteka [honetan](#).

**Landarlanek Erakunde kudeatzaileei urtero leize edo kobazulo bat garbitzeko proposamena luzatzen die, modu honetan, hainbat espeziek babeserako eremuak berreskuratuko lituzkete eta akuiferoen kutsadura ekidingo litzateke.**

## 7. Azken aipamena

Landarlan ingurumen elkarteak proposamen eraikitzaile hauek kontuan izan ditzala eskatzen dio bai Gipuzkoako Foru Aldundiari eta baita Enirio Aralar Mankomunitateari ere. Hainbat azterketetan eta Foru Dekretutan oinarritzen den proposamen honek ekintza egingarriak biltzen ditu eta ekonomikoki bideragarriak direnak. Gatazka soziala bideratzeko helburuz eginiko lana da eta zentzuzkoa dela esan daiteke, **Aralarren erabilizaile guztiengan pentsatuz eginikoa.**



**Edurne Huesa Otegi**

**Landarlan Ingurumen Elkarteko Lehendakaria**

2019ko apirilaren 26an